



**CCA:** Centre for  
Contemporary Arts

HOSPITALFIELD

# EGONALDI- DEIALDIA:

## CCA – HOSPITALFIELD

KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL  
CENTRE FOR  
CONTEMPORARY  
CULTURE

[tabakalera.eus](http://tabakalera.eus)

## ETXEPARE INSTITUTUAREKIN LANKIDETZAN



### 1. SARRERA

Artistei laguntzeko eta haien mugikortasunari mesede egiteko asmoz, eta artisten arteko kultura eta diziplina anitzeko trukea sustatzeko xedez, Hospitalfield, CCA Glasgow eta Tabakalera erakundeek egonaldi-programa bat jarri dute abian.

Hospitalfield eta CCA erakundeek denbora, espazioa eta baliabideak ematen dizkiete artistei, eta zeregin bikoitza gauzatzen dute egonaldi gisa eta espazio-emaile gisa, lan artistikorako testuinguru dinamiko eta jasangarria bultzatze aldera.

Programa honen helburu nagusia da laguntza eta asistentzia ematea prozesu artistikoetan, bai arlo kontzeptualean, bai ekoizpen-arloan.

Programari esker, bai eta Tabakalera gauzatzen ari diren beste batzuei esker ere, artista, eragile eta proiektu desberdinak elkarrekin bizi ahal izateko espazio bat sortu nahi da, egoiliarren eta gonbidatuen artean lankidetzak sustatu ahal izateko.

#### Hospitalfield

Hospitalfield Eskoziako kostaldeko Arbroath hiritik hurbil dago eta arteari eta ideia garaikideei eskainitako erakunde bat da.

Zentroak nazioarteko ospea du arte bisualen esparruan, egonaldi eta enkarguen bitartez artisten garapena ahalbidetzen duten egonaldi-programa eta enkarguengatik. Azken hamar urteetan, aipatutako programek denbora eta espazioa eskaini diete artista askori, beren ibilbidearen une erabakigarrian obra berriak garatzeko laguntza eskainiz. Hospitalfield eraikinak ospea dauka Eskoziako arts&crafts mugimenduko etxe garrantzitsuenetako bat izateagatik; egonaldiak sormen-egonaldi bat eskainiko du erdi-landakoa izango den eremu batean, adierazpen artistiko desberdinetako profesionalen talde batekin batera.

Patrick Allan Fraser XIX. mendeko artistaren ikuspegia izan zen Hospitalfield sortzeko oinarri; artistei laguntzeko eta arteetan hezteko ondare bat utzi nahi zuen. 1902an, hil ondoren, Trustek arte eskola bihurtu zen.

Gaur-gaurkoz, Hospitalfieldek ikuspegi horri alderdi garaikidetik erreparatzen dio. Eskaintzen duen egonaldi-programa ospetsuak arte bisualetan ditu sustraiak, baina hainbat diziplinako artistak gonbidatzen ditu.

## CCA Glasgow

CCA (Centre for Contemporary Arts) erakundea Glasgoweko zentro artistiko bat da. Urte osoan antolatzen dira erakusketak, zinema-programazioa, musika, literatura, tailerrak, jaialdiak eta performanceak. Jarduera guztiak artistekin lan egiteko nahiera, proiektu berriei ekitera eta lanok jendaurrean aurkeztera bideratuta daude.

CCAk kode irekiko programazio-politika dauka; egoitzako espazioak artista eta erakundeei lagatzen dizkie, haiek beren programazioa aurkez dezaten.

CCAk sei erakusketaren komisariotza egiten du urtean, eta bertako eta nazioarteko artistak aurkezten ditu. Halaber, Intermedia Gallery artista hasiberrien egoitza ere bada.

Gainera, CCAk lan berrien garapena bultzatzen du eta egonaldi artistikoen programa bat eskaintzen du bertako Sormen Laborategian.

## 2. HELBURUA

Deialdi honen helburua da egonaldi artistiko bat egitea Glasgoweko CCA eta Arbroatheko Hospitalfield erakundeen (biak ala biak Eskozian). Programa Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan garatuko da.

Deialdia Euskadin (Euskal Autonomia Erkidegoa, EAE), Nafarroan eta Iparralden jarduten diren artistentzat da, baldin eta Eskozian testuinguru artistiko berriak aztertzeko eta jardun artistikoa garatu bitartean ibilbide artistikoa zabaldu nahi baldin badute.

Egonaldiak **bost aste** iraungo ditu, eta, 6. klausulan adierazten den moduan, espazioa, testuingurua eta denbora eskainiko dizkio artistara, proiektu artistiko bat gara dezan. **2024ko urria eta azaroan** egingo da. **Egonaldiak bi zati izango ditu: aukeratutako artistak 3 aste emango ditu CCA Glasgow-n (urriaren 14tik azaroaren 3ra), eta 2 aste emango ditu Hospitalfield-en, Arbroath (azaroaren 4tik azaroaren 18ra).**

Aurkeztutako eskaera guztien artean **proiektu bat aukeratuko da.**

## 3. IZANGAIK / PARTE-HARTZAILEAK

Deialdi hau euskararen esparru geografikoan jarduten duten pertsona fisiko edo juridiko guztientzat da, hau da, Euskadi (Euskal Autonomia Erkidegoa, EAE), Nafarroa edo Iparraldekoak diren eta lanaldi osoan edo partziazalean profesionalki proiektu artistikoak garatzen dituztenentzat, arte garaikidearen sektorean edo sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotenentzat.

Errolda eskatuko zaie EAEko artistei, eta Nafarroako edo Iparraldeko eskatzaileei, berriz, proiektuaren adierazpen-hizkuntza euskara izatea.

#### 4. BATZORDEA ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Hospitalfield, CCA eta Tabakalera erakundeek batzorde misto bat osatuko dute, erakunde bakoitzeko ordezkariek eta kanpoko eragileek osatua. Batzordeak irizpide hauen arabera ebaluatuko ditu proiektuak:

- Berrikuntza eta originaltasuna. Proiektuak Hospitalfield, CCA eta Tabakalerako jardueri eta testuinguruei egiten dien ekarpen-maila.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Izangaiaren proiektuaren koherentzia, bai eta orain arteko bere ibilbidean duen koherentzia ere, bai banaka, bai kolektiboki beste eragile edo artista batzuekin batera.
- Proiektuaren bideragarritasuna eta Hospitalfield eta CCA erakundeen baliabideetara eta lan-espazioetara egokitzeko gaitasuna.
- Hospitalfield eta CCA erakundeen egonaldi-programaren testuinguruan jarduera artistikorako bideak sortzeko gaitasuna.

**Ingeles-maila ertaina edo aurreratua izan beharko da.**

Tabakalerak itzarote-zerrenda bat egingo du, aukeratutako lehen pertsonak egonaldia onartu ezin badu ere arrazoi pertsonalengatik.

Batzordeak deialdia bertan behera utzi ahal izango du proiektuek ez badituzte betekizunak betetzen.

#### 5. ESLEIPENAK

Programak laguntza hauek barne hartzen ditu:

- Aukeratutako pertsonaren joan-etorriak Euskadi eta Eskozia artean. Bidaia hauen gastuak izango dira egonaldiaren barnean ordainduko direnak:
  - Bizilekua – Glasgow
  - Glasgow – Arbroath
  - Arborath – Eskoziako aireportua
  - Eskoziako aireportua – Bizilekua
- Hospitalfielden: artista egoiliarrek etxe historikoan hartuko du ostatu, eta lan-espazio bat izendatuko zaio bere azterketa-beharren eta ikerketa-interesen arabera. Banaka beren proiektuak egingo dituzten beste zortzi artistak osatuko duten egonaldi-talde baten parte izango da. Egoiliarren otorduak etxeko sukaldariak egingo ditu; egonaldia egin aurretik aurkeztutako betekizun dietetikoetan oinarrituko da. Artistak logela pribatu bat izango du, bainugela partekatua eta sukalde partekatu bat erabiltzeko aukera, baita Interneta ere Wi-Fi bidez etxe osoan.
- Glasgoweko CCAn: apartamentua, erabat hornitua (sukalde txikia, bainugela eta logela lanerako gune txiki batekin, Interneterako sarbidea Wi-Fiarekin). Lanerako espazio bat, oinarritzko altzariekin, argiteriarekin, elektrizitatearen eta Wi-Fiarekin.
- 1.250€ gordin (zergak eta kenkariak sartu gabe), egonaldia osatu bitartean bizitzako eta laneko gastuen ordainetan, faktura bidez ordainduta.
- Baliabide ekonomikoak, gehienez 500€ gordin (zergak eta kenkariak sartu gabe) arte, faktura bidez ordainduta.
- Laguntza kontzeptuala proiektua garatzeko, eta asistentzia eta laguntza proiektua eragilei edo testuinguru bereko proiektuei aurkezteko, egoiliarrek hala behar badu.

Kolektibo baten parte den artista edo eragileren baten proiekturen bat aukeratuz gero, ez da onartuko.

## 6. EGONALDIAREN IRAUPENA

Egonaldiek bost asteko iraupena izango du, **urriaren 14tik azaroaren 18ra**.

## 7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honi erantzunez eskaera aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Izangaiak dagoeneko onartutako eskaera ukatzen badu, behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko du. Hitzartutako egunetan lantokian justifikatu gabeko absentzia bat badago, egonaldia eta hari datxekion kasuan kasuko laguntzak eten ahalko dira.
- Hospitalfieldetik eta CCAtik igaro ondoren, egoiliar bakoitzak txosten bat idatzi beharko du egonaldiari buruz.
- Egonaldia bera edo egonalditik sortutako jarduerak Hospitalfieldek, CCAk eta Tabakalerak programari eta lan-espazioen esleipenari dagokienez egindako programazioan gehituko dira.
- Artistaren egonaldia artelan baten edo argitalpen baten ekoizpenera bideratuta badago, Hospitalfield, CCA, Tabakalera eta Etxepare Euskal Institutuaren izanak kredituetan agertu beharko dira.
- Egonaldiak ez du aukerarik emango zentroetan lanak garatu eta erakusteko, baina aurkezpen publikoa egiteko aukera izango da.

## 8. BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea **2024ko abuztuaren 5etik irailaren 2ko 12:00ak (eguerdia)** arte izango da (UTC+01:00). Deialdiaren ebazpena **2024ko irailaren 9an jakinaraziko da**, eta **ebazten denetik 15 eguneko epean, Tabakaleraren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da**.

Eskaerak Tabakaleraren webgunearen aurkeztuko dira. Online galdetegia osatu beharko da, eta honako dokumentazio hau erantsi **euskaraz eta ingelesez**, jarraian zehaztutako ordena mantenduta:

1. Harremanetarako xehetasunak: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, harremanetarako telefono-zenbakia, jaiotze-data eta Nortasun Agiri Nazionaleko zenbakia.
2. Proiektuaren eta Eskoziako egonaldian garatuko den proiektu-fasearen exekuzioa justifikatzen duten arrazoien azalpena (gutxienez 500 hitz eta gehienez 1.000).
3. Eskuragarri dagoen edozein irudi edo material, proiektua ilustratzen laguntzeko.
4. Gutxienez aurretik egindako 4 lan, bakoitzaren irudiekin.
5. Curriculum vitae eta biografia labur bat (500 hitz).

Dokumentazioa dokumentu bakarrean eta PDF formatuan aurkeztu beharko da (gehienez 10 MB-ko tamaina eta 10 orrialde), **eta euskaraz eta ingelesez idatzi beharko da**. Izangaiak ez badu dokumentazio hori edo eskatutako beste dokumentazioren bat aurkezten, batzordeak aurkeztutako proiektua baztertu ahalko du.

Artxiboaren izenak honako formatu hau izan beharko du:  
izena\_abizena\_residency\_ccahospitalfield; adibidez: miren\_etxaniz\_\_residency\_ccahospitalfield.

## 9. JABETZA INTELEKTUALA

Izangai eta parte-hartzaile guztiek eta aukeratutako onuradunek ziurtatuko dute Hospitalfieldi, CCARI eta Tabakalerari aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala eta ikus-entzunezkoa, (i) bai eskaeraren esparruan, bai, hala badagokio, (ii) oinarri hauen xede diren baliabideen bidez hornitutako proiektuaren exekuzioan zehar, originala dela eta ez duela hausten hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubiderik. Horrenbestez, Hospitalfielden, CCAREN, Tabakaleraren eta azken erakunde horren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo du hirugarrenek material horiei lotuta planteatzen dituzketen jabetza intelektualari buruzko erreklamazio guztien aurrean; hala, erakunde horiei kalte-ordaina eman beharko diete kontzeptu horiei lotutako erreklamazioetatik eurentzat sor daitezkeen kalte eta galera guztiengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek Hospitalfieldi, CCARI eta Tabakalerari baimena ematen diete aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala eta ikus-entzunezkoa edozein euskarritan erabiltzeko, oinarri hauen xede diren hornidurak hedatzeko eta horien bidez hornitutako proiektua exekutatzeko xede bakarrarekin.

Aurretik esandako guztia ulertzen da egilearen eskubide moralei eta aipatutako dokumentazio grafikoari, testualari eta ikus-entzunezkoari dagozkion jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunari kalterik egin gabe; izan ere, dagozkien onuradunenak izaten jarraituko dute.

## 10. DATU PERTSONALEN BABESA

Izangaiei jakinarazten zaie, oinarri hauen onarpenaren bidez, Hospitalfieldi, CCARI eta Tabakalerari baimena ematen dietela eskaera aurkeztean emandako datu pertsonalak eta oinarri hauen xede diren baliabideen bidez hornitutako proiektuaren exekuzioan zehar emandako beste datu batzuk (hautatuak badira) tratatzeko, eskaera izapidetu eta kudeatzeko, emandako hornidurak baliatzeko, eta, ondoren, horien bidez hornitutako proiektuak hedatzeko xedearekin.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horiei jakinarazteko lege-betebeharra badago. Halaber, eta II. klausulan eta hurrengoetan xedatutakoa bezela, horniduren onuradunen irudia eta izena hirugarrenei jakinarazi ahalko zaizkie Hospitalfieldek, CCAk eta Tabakalerak oinarri hauen xede diren hornidurak zabaltzeko eta horiekin hornitutako proiektuak gauzatzeko erabilitako jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, jasota geratu da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; horrela, datu horiek ez badira ematen, laguntzarako eskaera eta horren ondorioz deialdian parte hartzeko aukera ezingo lirateke artatu.

Izangaien eta parte-hartzaileen datu pertsonalak hautagaitza baloratzeko, eta, hala badagokio, horniduren emakida eta gozamina kudeatzeko beharrezkoa den epean gordeko dira. Horrez gain, Hospitalfielden, CCAREN eta Tabakaleraren lege-beteberrak betetzeko beharrezko epe gehigarrian kontserbatuko dira.

Nolanahi ere, hautagaiei eta parte-hartzaileei jakinarazten zaie hautatutako onuradunek eskubidea izango dutela (i) beren datu pertsonalen sarbidea eskatzeko, eta horiek zuzentzeko, ezabatzeko, horien tratamendua mugatzeko, datuok eramateko edo, hala badagokio, tratatzearen

aurka egiteko, posta elektroniko bidez honako helbide honetara idatzita: [pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus); eta (ii) Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunetan erreklamazioa aurkezteko, bereziki, eskubideak baliatzean gogobetetzea lortu ez badute.

## 11. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuta, hautatutako onuradunek berariaz baimena ematen diete Hospitalfieldi, CCARI eta Tabakalerari (i) beren irudia beharrezko bitartekoen bidez erregistratzeko (argazkiak, bideoa, etab.); eta (ii) irudi horiek eta beren izenak Hospitalfielden, CCAREN eta Tabakaleraren webgunean eta bere kontrolpeko edo hirugarren kolaboratzaileen kontrolpeko beste edozein euskarri ukigarritan edo ukiezinetan erreproduzitzeko; hori guztia oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta horiekin hornitutako proiektuak gauzatzeko helburu bakarrarekin. Baimen hori ezeztagarria da.

## 12. OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezteagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.

**Info +:** [pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus)

[www.tabakalera.eus](http://www.tabakalera.eus)